Klick-sssh-klak

Iñigo Barandiaran

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Iñigo Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

nola desagerarazi zuten plurala:

egun batetan
olerki egoista guztiak
bildu ziren
liburu autistaren kolkoan
eta k-a motelenak
margenetik at
utzi zituzten

izerdi tantan gazi bat
irristatzen da
nere bekokitik
erortzen zaio
paper zuri-beltzari
nire sudurretik
hizkiek igeri egiten dute
uler ditzagun
gure begiak
izerditan daude
ulertu egin baitute

hum
hire lepoaren azal
zuri eta xamurra
hire lepoaren epeltasuna
kuello-maho eta kamisetetatik
izerditzen zaizun
berotasun bizi hori
lo eta maite
razten nauen

trumoi gorritxu hori...
hire ardats-kobeen arima
topatu egin dinat
nire eskuen iluntasunean.

t.b.an hurrengo
domekaren futbol-partidoaren
trailerra.
azken orduko
albisteen letren
laberintotan heroinazko zenefak.
hankatarteko
malko geza likatsuak.
eta noizbehinka
(bakarrik teloia
jausi ondoren
noski)
pisa-dorrea banatzaizu?
bowie in the wind.

aztertu egin dut
banan banan
aurpegi bakoitza,
maluskatu,
letrakatu dïtut
hitz guztiak,
sakabanatu
maitaleak,
miatu ditut
beraien trakeskeriaren
bazter guztiak,
begiratu dut
ispiluen atzean,
usmatu dut
zakar-ontzietan,
birrindu dut
argi-izpi bakoitza,
desegin ditut
gure beldurraren
urrezko korapiloak,

eraulki dut
euria
zure bila.

txirikordatzen
ditut zure hatz
apalak
motetelen multan
dauden ezpainen
hari ttipiak
zure erlojuaren
hosto meheak
zure zilbor heste
minimoak;
bai
zure fereken
musu baten bila

badakizu
nere orbikularrak
luzatzen diren baino
arinago ibiltzen naizela
badakizu
nere bularra
korapilatzen
dudala alperrik
badakizu
after-shave azala
duzula
badakizu
musu filter
                extra large
baino ez
dudala segregatzen.

azkenean
haizeari berdin zaio
nire ilea
ala hirea
zuhaitzak
ala antenak
leihoak
ala ateak
nori salduko dio
bere burua?
(eta buztana?)
haizeari berdin zaio
berdin makurtzen
baitu
zerua
edo zure beso epelak

Euri ostean
kale hutsetan
zakurrek
zaunka egiten
hedaturiko sedazko kometak
jotzen dituen
ihintzean zehar
zure argia
jantzien tunela gurutzatzen
asmatuko dut.
bai, gaur ere.
klik.

Egun batetan
Ekia izar batetaz
enamoratu zen,
baina ezin,
iluntzea oso lilura
guti zen eta.
Erregalatu zizkion

kometa arinenak,
Saturnoren aniloak
eta
bidaia bat Venusera?
baina ezin, beraien gorputzen
hotza
besterik ez
baitzuten sentitzen.

aire txinezkorik maiteenari:

I aurkezpena

Zure panaz inguraturik
harikiak
klaustroan sartzen den
eguzki izpien
zehargiz
luzatzen dira
harriz harri
oinarrietatik
isurtzen zaizun
ziriborra
tolestatuz.

II derrigorrezko amodiozko guttuna

ez dakizu nomino
gorrotatzen ditudan
hodeiak eta eguzkibako
egunak.

p.d. faro hat erosi dut

III zaindu zure lorategia

saiatzen naiz

argiaren
muga barkagaitza
ez zapaltzen
baina oso gogorrak
egiten zaizkit ekiaren
lehenengo eta azkeneko pausoak
egia esan eguerdia
dut maiteena.

IV agurra

ez zaitut sekulan
album batetan
gurutzatuko.

euria
egin nahi
dizut zure
karminbako ezpain loditsuetan,
zure mihiak
lotsaz erakusten
didaten hagineten,
aurpegian
kolatzen zaizkizun
ile txiribiloetan,
zure begien
sopin hilaunan,
bion artean
datzan palasta
nazkagarria
                triskatzeko.

bizitzaren
ostiralak
agurtzen zaitu
zapata-kutxa
dirudien leiho batetik
eta
kristalen horizta disdiratsuen
koordenadetan
kokotz-zuloak
eta sudur-ileak
(edo alderantziz?)
matzinatzen dira
kanpora joan nahi
ez dutelako
asteburuan.

Zure,
telefonoak iragazirik,
ahotsak
belarria moldatzen dit
emeki-emeki.
azkeneko
zurrumurrek
ekilibrioak egiten dituzte
kableen zurbesoan.
edozein bazterran
armiarmek
itzalen eulibeltzak harrapatzeko
hedaturiko sedazko kometak
jotzen dituen
ihintzean zehar
zure argia
jantzien tunela gurutzatzen
asmatuko dut.
bai, gaur ere.
klik.

arrainontzi
urbanoetan
zure masailetako zulotxoak
lotzen dituen segmentoa
ez da zimurtzen.
Ileak
zure argazki harrizkotik
eskura ezin dezakezun
freskotasuna
atzerantza orrazten dizu
ur ugariz.
begiak?
inork sekulan
deskribatu ez duen koloretakoak
lepo
iaia berotik
zintzilikatzen zaizun
larako nonahigodunek
osatutako pertxa
benetako okelazko dekoratuak
estaltzen du.

Mememetataarsiano
nabariak dituzu?
Ez zaitu inongo izenik
mugatzen edo urritzen?
Penagarria da
zure bihotz gabeko
ostadarraren paralisia
izate hori.

neska beltzaran bati:
«besarkatzen zaitudanean,
nere ahoak
hirearen zabaldura
ezin barnetu duenean,
gure belarriek
beraien bazterretatik
makina bat bitxikeria
esaten diotenean elkarri,
nere malkoak
irristatzen zaizkinan
hire
altzairu inox.ko
sorbaldatik
arrasturik utzi gabe»

kaleitxia
berotzen duten
hirugarren pisuko
sukaldearen argi
urdintsuak
apunte tartetik
aldentzen diren
musu konzentratuen
ezpainak
azken autobuserako
lasterketa
ozenak
parke-sarrera
ixilak
marmarak
pausoak
giltzak
betazalak
egunak
gainditzen gaituzten
egunak

antza denez
baso hutsaren
lehiar moldatuak
ahurra betetzen dit.
Bonbilaren
ehun ta hogei suak
sakontzen zaizkit
zoliki
zero ta hogeitabost
zero ta hirurogeitamabost
dioptriatan zehar.
So egiten diot,
ia ia pozik
leihoen kriskrasek
eutsitako
tantan irritsuen
hilzoriari.
Antza denez
nere erromako zubi eskasek
beirazko jauregi batetik
mundua ferekatzen dute.

deus dona mihi serenitatem
accipere
ezpainen eta luzaro
maluskatutako txikleen arteko muga,
azala eta
sobre usai guante
baino ez den ohialen
ararteko segundoak
edo apika
ez dira bereizten
ferekak eta muxu-
-almohadak bereizten
ez diren neurrian

nere begiak
iristen ez zaizkidan
lekuan
argiak zazpi
nabarmendura
ateratzen dio
iluntasunari.
nere begiak
iristen ez zaizkidan
lekuan
ez dakit
zer arraio
zurrumurratzen duen
neonak.
nire begia
insten ez zaidan
lekuan
ez dut arkaitzaren
punta ikutzen.
nire begiak
iristen ez zaizkidan

lekuan
margolariaren
palatxo nahastuta
zara.

hor
kale atzean
euritan untatzen zara
eta segundo batez
kristalezko terroia
sentitzen zara asfaltoan.
hor
aulki respaldoetan,
zure erdiaren erdian,
zure ahoaren arkupean,
zure marrubizko alfonbretan,
ez duzu tic eta tac
bereizten.
hor
andra-komunetan
kirrikagoa
harridura keinuez
atornilatzen duzuenean.

nere betilek
match-balletan
zure pinpon pelotak
barnizatzen dituztelakoan nago
zure
sorbaldaren arpan
nere hatzamarrak
desegiten dira
papera uretan
bailiran,
falangen fundek
toboganen crunch-a
oratzen dizudanean
ez dut zelofan
egokia topatzen
estaltzeko;
halan ta guztiz
ez dakit ze
motatako galboa
itsasten zaidan begitarte.

hostoen
burrunba sortzerakoan
hostoen
hotsa hazterakoan
hostoen
karraska lehortzerakoan
hostoen
intziria hasperenetan
horbeen
kexa zapaltzerakoan
hostoen
ixiltasuna orrietan

gure ahoek
dastatzen dute
elkarrekin
leiho haustsuan zehar
sartzen den
udaberri gazte honetako
zortziak laurden gutxiagoko
atmosfera morea
orduan
nere ahoa eta
zure ezpainak izatea
gustatuko litzaidake
ahoa izango banintz...

gustatuko
litzaidake zure
flanetan igeri
egitea eta
makina bat aldiz
sabelan narraz
nabilkizula karameloz
xipriztin nazazula,
erditik egingo
ninduke nere goilarak
egospen puntua
ezagutuko balizu
eta
baino-maria
hartzeak elkarri
burbuilak
botatzen dizkiogularik
gorringo raiatuaz
lehortzea
                gustatuko litzaidake,
bai, benetan.

Orain

gure gorputzen
usai mingotsa
baino
ez dugunean
esaidan
haizeak
ez duela edaten
kristalen kontra
sudur sakatuek
izerditzen duten bafada,
urkuilu bat
kentzen badizut
ulejauzi beltzarana
probokatuko dudala,
rimel
atzean
insinuatzen dena hire
begiak direla,
karmin-negatibo

lizun hauek
ez direla sudurpetik
desmaiatu.

akuarela
margolariren batek
bere pintzelak
zeru-ontzian garbitu omen zituen
eta beraz
eguzkiari egun horretako
«do depecho»a
estridente xamarra suertatu zitzaion.
aurpegi-eskuak triptikoetatik
dagoenekoz
hotzikararen are-azala
lasten duen traveling-agurtzeko begirada
horietako bat zerion.
betiletako terrazen aulkiak hankaz gora
eta malbabizko karameloak
gaua lubrikatzeari
ekin zion

Geltoki
tintatuan, pintarkatuan
Cirene ta Lespugueko
Venusak hizketan
Pensadora eta buda
Antinoo
Ekaitza eta Laksmi
Dafnis eta Cloe
Doriforoa eta Sûrya
Nefertiti eta biok
banatuak
barreiatuak
andenean
argi-bakarraren zain
IIIIIIIII
EEEEEEEEEE
AAAAAAAA
OOOOOOOO
NNNNNNN
RRRRRR
SSSSSS

DDDDD

UUUU

FFF

TTT

LLL

KKK

VB

PP

GG

Ñ

M

Y

C

TZ

seob ed

gaua
haurdun dago
eta izar-emagi dilatatuezko
gerriko estuak
ezin dezake abarka
agertzen diren
zango laranjak.
leihohialen
zokomokoetan
kasik baiezta
dezakeena txundituko
du nahitaez
erdiminetan.

maskuilo
egosi bat
hiri maindire aldatu
berriaren zeruaz
nagusitzen da
maitasun-doministikumeek
zintzurmihia lurruntzen
dutenean zalapartaka.
.rolocinhcet atsap-nigah
kafe-erne
azukre gehiegi
argiaren eptagrama
zurian dago
eta jantziak
bero-osmosiaren zain.
tapoia kendu:
dena espiraleka
ihes.

alkantarilek
iresten duten
uraren doinuak
eta
nire azken
hitz honen oihartzunak
laguntzen naute
etxerantzako bidean.
eguzkiak
(lerro laranja bat
besterik ez da)
sakabanatzen du
zeru morea
mila hodeitan.
zure begiak.
beirazko dilista disdiratsuak
irristatzen zaizkizu
begiazalen tartetik,
tristura gorde nahirik edo
nik
edaten dizkizut musuka.

ez,
ez da desagertu,
bakarrik joan da
bere soinpeko zuria jaztera.

plastikozko
setioaren beste aldean
zure izena
kursibaz idatzirik
sumatzen dut.
hitz-spray epelak,
musu kristalean.
bai, king-konek
behin jessica lange
maite izan zuen,
baina, bueno
argiak betaurrekoak
jartzen dituenean
itzal-erlojuak
inguratzen gaitu.
bihararte.
orain
zurrumurru-dutxaren
pi monotonoa

kilimusan
musu hutsen
eta masailetako
ukitzearen txapeldunak
besarkada indarge
batetan batu ziren
bere o
i bihurtzen duen
sokalaster bat bezala.
agurrean
16 gradozko
burbuilekin
lehertu ziren makina bat
ezpain gardenezko
zantakoak

ez duzu zure gelatinen dobladiloa
sekulan bilduko?
ezta l.s.d.zko
gondola bat
slalom dabilkizunean,
sikiera
ihi-motto
hertsiak zigomatikoak
makurtzen badizkizu.

Gustatzen zatzait
besteak bezalakoa
zarelako,
holan
falta zaitudanean
beste edonork
bete dezake
zure hutsunea.

alboko
andretxe refinatuaren
argiek gela
erakusten dute urdinki
orain bai, orain ez,
asterix liburuen
atmosfera laketsuen
riffa,
radiador-barren
ararteko besaulkitik
sortutako gnomoa,
ze lili mota
gustatzen zaizu?,
winston usai estia,
hurrengo intermedioan
ohera joango
naizela pensatzen
dudan bitartean.

karrankaletako
orkesta
kamioiek sortutako
kristalen dardararen
ritmoaz
bals bat
dantzatzen hasi zenean
lehenengo lerroan
zegoen kolore-telebistaren
begiak lausotu ziren,
lanpak erantzi ziren
eta gordetu zituzten
inorkezdakinongo armarioan
beraien tul gardenezko
jantziak,
erlojuek osatu zuten
ostikada e-ter-no-a,
maindire tartetik
taxutu ziren irudizko guttunak
erliebez
eta iluntasuna

zangoa non jarri
ez zeukanez
lo egitera joan zen